

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
75	1.629	146	530
positibo berri	hildako EAEn	positibo berri	hildako
3.534	4	7.555	6
positibo guztira*	UCIn EAEn	positibo guztira	ospitalizatuta

*Hernanin 80 Astigarragan 27

Legarretak bi lantegi, abuztuan eta irailean

Abuztuaren 22rako Chillida-Lekun argigrama lantegia antolatu da, 11:00etan, eta irailaren 12an San Telmo Museoa, familientzat, goizez beste tailer eramango da aurrera.

HERNANI ARGAZKILARITZA

Nagore Legarreta argazkilari hernaniarrak agenda ongi betea du abuztuan eta irailean, hila-bete honetako bere boletinean ikusi daitekeenez. Bi lantegi antolatuko ditu datozen bi hilabeteetan eta lehenengoa abuztuaren 22an, larunbatean, izango da Chillida-Leku museoa.

Argigrama lantegia egingo da museoa, goizez, 11:00etan Eduardo Chillidaren eskulturek argiarekin duten harremanaz jabetu eta esperimintatzeko. Lantegia haur eta helduentzat izango da, eta bertan, argazki paper analogikoa, argia, pintzelak eta elementu ezberdinak erabilia bapateko irudiak sortuko dituzte. Izena emateko www.museochillidaleku.com helbidean egin behar da.

San Telmo museoa Argaz-

ki txikiak izenburupean argazki lantegia garatuko da familientzat, haur eta helduentzat. Argazki lan ezberdinetan oinarritutako inprobisazio ariketak proposatuko dira eta ondoren, komentatu egingo dituzte. Lantegi hau irailaren 12an, larunbatean, goizez izango da. Mugikorra edo argazki kamera eraman behar dira. Izena emateko www.santelmomuseoa.eus helbidera sartu behar da.

Emakumearen indarraren inguruko erakusketa

Sorginlore gizarte ekimenaren eskutik, emakumearen indarrak hausnartzeko hainbat saio burutu dira azken hilabeteetan, Donostian. Saiotan sortutako argazkiekin erakusketa osatzen ari dira orain. Inaugurazioa irailaren 29an, asteartean, izango da Garraxi jatetxean. **K**



Nagore Legarretak lantegi eta tailer desberdinak eskainiko ditu.

Prebentzio neurriak zorrotz beteta, gaurtik adinekoen egoitzetako erabiltzaileak kanpora atera ahalko dira

Foru Aldundiak prebentziozko PCR kopurua areagotu egin du; azken astean 1.635 test egin ditu Gipuzkoako egoitzen sarean.

URUMEA KORONABIRUSA

Adinekoen egoitzetako erabiltzaileak kanpora atera ahal izango dira gaurtik aurrera, hau da, paseoak eman ahal izango dituzte prebentzio eta higie-neurri guztiak zorrotz beteta, eta une oro espazio jendetsu edo itxiak saihestuta. Gizarte Politiketako Departamentuak

uztailaren 18an murriztu zuen adinekoak egoitza zentroetatik ateratzeko aukera, lurraldean izandako agerraldien aurrean, baina atzo jakitera eman duenez, Osasun Sailari kontsulta egin ondoren eta bere gomen-dioari jarraituz, erabiltzaileek higie-nez ere ordu eta erdiko paseoak eman ahal izango dituzte, beti ere FFP2 maskara jantzita

eta «aire zabaleko guneetan eta zentrotik hurbil» egonez.

Izaera terapeutikoa du

Beraz, paseoek «izaera terapeutikoa izango dute nagusiki» eta adinekoek «bakarrak edo profesionalak edo hurbilekoek lagunduta» egin ahal izango dituzte ibilaldi horiek, «prebentzio eta higie-neurri guztiak» eta «espazio jendetsu edo itxiak» saihestuta. Bizikidetzaren unitatean COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten familiek ere ez dute bisitarik

egingo edo senideak paseatzera aterako.

Paseoak egitean –ordutegiak egoitzak berak zehaztuko ditu–, laguntzaileei buruzko datuak erregistratuko dira; horrela, laguntzaileek beren senitartekoa edo gertukoa jasoko dute zentroan sartu gabe, eta dokumentu bat sinatuko dute, non prebentziozko higie-neurri guztiak mantentzeko konpromisoa hartuko duten.

Era berean, prebentziozko eta distantzia sozialeko neurriak bete beharko dituzte, gai-

nerako herritar guztiak bezala, maskarilla nahitaez erabiltzea barne. Zentrorra itzultzean, tenperatura, eskuen higie-neurri eta oinetako higie-neurri kontrolatuko dira, eta gurgil aulkien, bastoien eta euskarri elementuen higie-neurri zorrotz tuko da.

Beren egoera fisiko edo kognitiboagatik beste batzuen laguntza behar duten egoiliarren kasuan, haiekin dauden arduratu beharko dira indarrean dagoen legerian ezarritako prebentzio eta higie-neurri guztiak betetzeaz. **K**

Funeraria
VASCONGADA
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

TILIN & TOLON

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK
KONSULTAK

943 55 56 94

Txirrika, 10 - HERNANI

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobi.: 665 735 224
20120 Hernani

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A

Larunbata, hilak 15
EGUERDIAN
IREKITA

Iturriaga kalea, 10. Hernani
Tel.: (943) 33 02 91

EGURDIA
GAUR Eguraldi aldakor eta ezegonkorrekin jarraituko dugu. Goizean giroa lasaia izango da eta ateri eutsiko dio. Arratsaldean okerrera egingo du. Tenperaturak gora. **Min.19° / Max.30°**

BIHAR Ez da aldaketa handirik espero. Zeru lainotsu egongo da, tarteka oso lainotsu eta noizbehinka euria egin dezake. tenperatura zerbait jeitsiko da. **Min.19° / Max.26°**

DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarraga Udala

Ereñotzako Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EHUNEK
EUSKARA ELKARTEA

GIJONKO FORU AHDURIA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Ibarrolaburu plazan eskaini zuen Patata tropikala taldeak antzerkia.

Aguiko urbanizazio lanengatik trafiko aldaketak, gaurtik

Ostiralera arte iraungo dute eta gaur Arrobotxulo bidea moztuko da.

ASTIGARRAGA UDALA

Aguiko urbanizazio lanetan bideak asfaltatu eta rotunda amaitzeko lanak egingo dira, gaurtik ostiralera arte, eta trafikoan hainbat aldaketa egingo dira. Gaur, Arrobotxulo bidea moztuko da zebra bide altu bat egiteko. Bihar, Tranbia bidea moztuko da biribilgunea asfaltatzeko. Ostegun eta ostiralean margoketa lanak egingo dira.

Gaur, Arrobotxulok ez du irteerarik izango

Goizeko 08:00etan Arrobotxulo bidea moztuko da zebra bide bat egiteko, 15:00etan amaituta egotea aurreikusten da. Obrak dirauten bitartean kaleak ez du irteerarik izango eta bizilagunek ibilgailuekin bi noranzkoetan ibiltzeko aukera izango badute ere, arreta eta kontu handiz egin beharko dute.

Tranbia kalea moztuko da bihar eta Aiotzategitik desbideratuko da trafikoa
Tranbia kaleko rotunda asfalta-



Arrobotxulo bidea.

tzen den bitartean kalea moztuta egongo da bihar. Hori dela eta, trafiko guztia Aiotzategi kaletik desbideratuko da.

Autobusak ere Aiotzategi kaletik joango direnez, Erribera plaza aurreko autobus geltokiak ezingo dira erabili, bertan behera geldituko dira.

Ostegun eta ostiralean margoketen ondorioz mozketa laburrak

Bi egun hauetan margoketa lanak egingo dira. Hori dela eta, Arrobotxulo eta Tranbia kaletako trafikoan eragozpenak sortuko dira, hala nola, trafiko mozketa laburrak eta desbideratzeak. **K**

Izarren behaketa, bihar Chillida-Lekun

HERNANI KULTURA

'Uda Hernanin' egitarauarekin, izarren behaketa egiteko aukera egongo da bihar, asteazkena, Chillida-Lekun. 19:00etan irekiko dira ateak, eta behaketa 23:00 eta 03:00ak bitartean izango da. Sarrerak aurreko astean agortu ziren.

Desagertutako mutila onik azaldu da

HERNANI GERTAKARIA

Larunbatean desagertu zen 15 urteko mutila desagertuaren berri eman eta ordu gutxira azaldu zen. Emergentzia zerbitzuek eman zuten desagertu eta agertuaren berri.

Marrazo bat ikusi zuten Kontxako badian

DONOSTIA GERTAKARIA

Tintorena edo marrazo urdin bat ikusi zuten atzo Kontxako badian eta horren ondorioz bandera gorria jarri zuten. Arratsaldean zehar bandera gorria kendu zuten ez zutelako marrazorik aurkitu.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,.... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Portun 'Ehiztari ehizatua'-z gozatu zuten familiek

HERNANI ANTZERKIA

Portu auzoko bizilagunek, udalaren laguntzarekin, *Ehiztari ehizatua* antzerki familiarraz gozatu zuten uztailearen amaie-

ran, Ibarrolaburu plazan. Patata Tropikala antzerki taldearen antzezlanak lan gustagarria egin zuen eta Udan Kulturaz Blai egitasmoaren barruan

kokatzen zen emankizunak arrakasta handia izan zuen hurbildu zirenen artean. Guraso eta umek algara ederrak egin zituzten.

Umore Ona elkarteak garbitasuna egiteko pertsona bat kontratatuko du

Urritik martxora bitartekoa izango da kontratazio aldia eta Goizuetan errolatua izatea da bete beharreko baldintza.

GOIZUETA LANA

Umore Ona elkarteak garbitasuna egiteko pertsona bat kontratau behar du. Kontratazio aldia urritik martxora bitartekoa

izango da.

Bete beharreko baldintza Goizuetan errolatua izatea da eta kontuan hartuko dira ondorengo egoerak: langabezian egotea (zazpi puntu), diru sa-

rterarik ez izatea (bost puntu) eta Umore Onako bazkide izatea (hiru puntu).

Eskaera idatziz edo telematikoki aurkeztuko da irailak 11, ostirala, baino lehen, goizueta-koumoreona@gmail.com helbidean.

Informazio gehiago nahi duenak komisioko edozein kide-rengana jo dezake. **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Egia, giza-eskubideak eta osasuna

Hernaniar hori: Azken hilabeteetan bizi dugun egoera larriaren aurrean, herritar batzuk elkartu gara eta honen guztiaren harira gure ikuspuntua adierazi nahi dugu:

Pandemiaren aitzakiapen erakunde ezberdinak hartzen ari diren segurtasun neurriak direla eta, ozen esan behar dugu berauek ez direla inolaz osasun irizpideetan oinarritzen, baizik eta helburu politiko, ekonomiko edota bestelakoak dituztela ardatz. Argi dugu, bestalde, ezarri dizkiguten jokabide-arauek gu guztion giza-eskubideak urratzen dituztela eta ez dutela inolako berme juridikorik.

Neurri horietako asko gu giza-

zakion duintasunaren aurkako eraso zuzena direla konbentzitu gaude, eta horri erantzuteko gure irmotasun guztia azaltzeko prest ere.

Musuko edo mozalaren inposaketaren aurrean gainera, gaitzespen tinkoena erakutsi nahi dugu, batetik, hura derri-gortzea ebidentzia zientifikorik gabe hartutako erabakia izan delako, mediku askok eta askok ohartarazi bezala; pertsonaren osasunean kalteak eragin ditza-keelako, eta azken horien duintasunaren aurkako arbuioa kontsideratzen dugulako.

Gauzak horrela, hernaniarre helarazi nahi diegu herrian bertan talde bat osatu dugula

egoera latz honi aurre egiten hasteko. Gaurdaino markatu ditugun xede nagusien artean daude jendea koiuntura kezkarri horren inguruan kontzientziaztea, hedabide hegemonikoaren informazioa beste iturri alternatiboekin kontrastatzera bultzatzea, eta herritar bakoitzak dagozkion eskubideak eza-gutu eta defendatzea.

Amaitzeko, aipatu behar dugu ondorengo asteetan zerbait ekimen egingo ditugula herriaren barna gure ekinbidea aditzera emateko.

Osasunik gabe askatasunik ez. Esna Hernani.

Mikel Aginagalde Ugartemendia